

Abenduaren 30ean
FAMILIA SANTUA. JESUS, MARIA ETA JOSE

Agurra

Jainkoaren familia egin gaitu Jesusek.
 Haren grazia eta bakea zuekin!

Sarrerako Oharpena

Eguberri zortziurrena edo oktaba ospatzen ari garela, Familia Santuaren jaia dugu gaur. Nazareteko familia ospatzeak Jesusen gizon egite apalera gerturatzen gaitu: Mesias giza-elkartera etorri da, giza-familiara. Mesias gu sakonetik berritzera etorri da, gutako bat eginez.

Ospa dezagun Igandeko familia-batzarra: Eukaristia. Bertan ematen zaigu ogi-ardotan geureganatzen den Hitza.

Damu-otoitza

Salbamenaren misterioa ospatzera goaz. Zabal dezagun gure bihotza Jaunaren erruki mugagabera. Eska dezagun barkamena.

- Jesus Jauna, Mariagandik jaio / eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen / eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun / Aitarenen Lehen Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Aintza

Kanta dezagun aingeru eta artzainekin Eguberri gaueko kantu alaia:
Aintza zeruetan, bakea lurrean!

Otoitza

**Jainko gure Aita,
Familia Santua eman diguzu jarraibide eder;
egizu, gure familietan ere
famili bizitza zintzoan eta elkarren maitasunean hari jarraituz,
betiereko zoriona izan dezagula zeruetako etxean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Familian denak izan behar du maitasun. Errukizko bihotzik eta gertutasunik gabe zaila da familiak sendo irautea. Odoleko familiaren harremanak kristau-familiara ere zabal daitezke. Bietan da ezinbestekoa ulermena, onarpena eta maitasuna. Nazaretoko Familia dugu honen guztiaren adibide eta eredu eder.

Lehenengo irakurgaia (Si 3, 3-7. 14-17a)

Siraken liburutik

Goresgarriago egiten du Jaunak aita, seme-alabak baino; eta amari eskubidea ematen dio bere umeen gainean. Aita goresten duenak bere bekatuak ordaintzen ditu; eta ama goresten duenak ondasunak pilatzen. Aita goresten duenak poz izango du bere seme-alabetan; eta otoitz egunean entzun egingo zaio. Aita goresten duena luzaro biziko da; eta Jaunak entzuten dio, amari atsegin ematen dionari. Ene

seme, iraun zeure aita goratzen, eta ez utzi bizi daino. Burua galtzen badu ere, izan zakizkio bihotz handiko eta ez gutxietsi bizi zareino; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu; zoritxar egunean, gogoan hartuko dizu Jaunak.

Erantzun-salmoa (Sal 127. 1-2. 3. 4-5)

Jau - na - ren bel - dur den gi - zo - na, hu - ra
 bai de - la do - ha - tsu - a.

Dohatsu, Jaunaren beldur dena,
 Haren bideetan dabilena!
 Zure eskuen lana baituzu jango,
 zoriontsu izango zara eta ongi zaizu joango. R/.

Zure emaztea, mahasti emankorraren antzean,
 zure etxe barnean;
 zure seme-alabak badirudite olio kimua,
 zure mahai inguruan. R/.

Begira, hala izango da bedeinkatua gizakia,
 Jaunari beldur diona.
 Jaunak Siondik bedeinka zaitzala,
 Jerusalem dohatsu ikusiz beti bizi zaitezela. R/.

Bigarren irakurgaia (Kol 3, 12-21)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Jantzi zaitetze bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, egokitasunez, eraman onez, Jaungoikoaren herri aukeratu, santu eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inorentzat ezer baleuka. Jaunak barkatu dizuen bezala, barka zuek ere.

Guzti horien gaisetrik, ordea, izan ezazue maitasun; hori baita lokarririk bikainena. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean; eta izan esker onekoak. Oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza: jakinduriarik osoenean elkar argituz eta berotuz; salmoak, goratarreak, eta goi arnasezko abestiak Jaungoikoari bihotzez eta eskerronez kantari. Edozer esaten edota egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, Beraren bidez Jaungoiko Aitari eskerrak emanez.

Emazteok, zaudete zeuen senarren menpean, Jaunarengan egoki den bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogorrek haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi du eta Jaunak. Gurasuok, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogoia gal ez dezaten.

Aleluia (Kol 3, 15a. 16a)



Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan;
oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza. R/.

Ebanjelioa (Lk 2, 22-40)

Homiliarako argibideak

Maitasuna da batasunaren lokarria

Krisiak familiaren garrantzia agerian jarri zigun berriz ere. Zahar-
etxeetan bizi ziren aitona-amonak euren seme-alabekin bizitzen hasi
dira berriz ere, zailtasun ekonomikoei aurre egiten laguntzeko. Giza
errealitatea da familia, kultura guztietan preziatua, **gizartearen zelula**
baita. Zoritxarrez, horri eta gobernuari ahaztu egiten zaie, askotan,
familia babestea, eta mota guztietako arazoak ere jartzen dizkiote.

Giza familia batean jaio zen Jesus. Zaindu egin zuten Josek eta
Mariak, hazten lagundu zioten, eta pertsona arduratsua izan zedin
hezi zuten. Familia kristauaren eredu da Familia Santua, edo familia
ororena, Jainkoagandik baitator gurasotasuna zeru-lurretan. **Biziaren
santutegi** balioa du familiak. Bertan den bezalakoa delako maite dute
bat, ekonomikoki errentagarria den edo ez kontuan hartu gabe.
Familia guztiek bizi duten maitasun-errealitatea bizitzen saiatzen da
familia kristaua. Baina familia-bizitza etxeko Eliza gisa bizita,
sendotu egiten da familia, eta gai da familiaren egonkortasuna
arriskuan jartzen duten erronka guztiei aurre egiteko.

Jesus hezteko ardura izan zuten Josek eta Mariak. Ez zen erraza
izango, haur berezia baitzen, baina normaltasun osoz egin zutela
dirudi. Gurasoek bazekiten haur hori Jainkoagandik zetorrela, baina
denak hain arrunta zirudenez, ahaztu ere egin zuten ia. Hamabi urte
zituela, Jesus tenpluan geratu zenean, Aitaren gauzetan jardun behar
zuela esanez, ez zuten ulertu zen esan nahi zuen (Lk 2,41-52). Baina
errespetatu egin zuten mutikoaren **erabakia**, eta ez ziren haserretu.

Erronka handia da heziketa gaur egun. Kontua ez da ezagutza
teknikoak irakatsi eta transmititzea bakarrik, baita herrialde bateko
gizarte bizitzaren oinarri diren benetako balioak ere. Familian
ikasten dira giza eta erlijio balio horiek, osmosiz. Gizarte egoera
dela-eta, familia askok alde batera uzten dute eginbehar hori,

zoritarrez, eta ikastetxearen esku uzten dute hezkuntza erabat. Ikastetxeek, berriz, bikaintasun akademikoa bilatzen dute askotan, eta alde batera uzten dute pertsonaren prestakuntza osoa.

Joseri eta Mariari esker, heltzeko eta bere eginbeharrerako prestatzeko aukera izan zuen Jesusek, **bere herriaren balio handi guztiak** ikasita. Josek eta Mariak ere lortu zuten heldutasuna, Jesusen ondoan egonda, Harentzat bizitzen ikasita eta Haren aukerak errespetatuta, nahiz eta Haren jokabidea ez ulertu. Ebanjelioaren balioek ematen diote zentzua giza familiari, eta biren edo hiruren arteko egoismoa bihur dadin saihesten dute. Eliza den Jainkoaren familiaren ikuspegira zabalduz bakarrik ikasten dute gure giza familiek zein den munduan duten misioa: Jesus presente egitea, Erregetza eraikitzeko. Eukaristia honek Jainkoaren seme-alaben giza familia handia eratzen lagun gaitzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin diezaiogun otoitza Jesu Kristo Jaunari, familia santutzeko giza familia batean bizi nahi izan zuenari:

Erantzuna: **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



E-ra kuts gu ri, Jau- na, — zu - re bi-hotz o - na.

— Maria eta Joserren etxean familia-bizitza elkarbanatu zuen Jaunak, zaindu dezala bakean kristau-familia guztien elkarbizitza. Egigun otoitza. R/.

— Senargai eta emaztegai guztiak, Jainkoaren presentzia sumatuz eta elkarren maitasuna biziz, egoki presta daitezten Ezkontzako Sakramenturako. Egigun otoitza. R/.

- Jainkoak familia zatituak argitu eta gogoberotu ditzan. Lana dela eta bereiztuta bizi behar duten senar-emazteak, familia zatituetako kideak, haurrik ez dutelako sufritzen dutenak eta senideren baten heriotza dela eta negarrez daudenak, indartuak gerta daitezen. Egigun otoitz. R/.
- Gure familian eta kristau elkartean bakean bizitzen saiatzen garenon alde: gaindi ditzagula ontasunez, ulermenez eta maitasunez izan ditzakegun zailtasun eta konponezinak. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, gizaldi guztiak baino lehen sortutako zure Semea giza familia baten kide egin zenuen; entzun gure otoitzak eta egizu gurasoek parte izan dezatela zure maitasun ugarian, eta seme-alabak hazi daitezela jakindurian, ulermenean eta grazian zure aurrean eta gizaki guztien aurrean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Errukiaren Jainkoak, bere familiaren mahaian nahi gaitu orain. Betleemgo estalpe hartara bezala, mahai santu honetara dator Kristo gu biltzera: gu batasunean biltzera.

Prefazioa: Eguberritako II. Prefazioa. (*Meza-liburuan, 316. or.*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Aita guztiz ona,
sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunok
Familia Santuaren antzera bizi gaitezela,
lur honetako estualdien ondoren
Berarekin batean betiko zoriona iritsi dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapenaren aurretik

Jainkoaren bedeinkapena hartzera goaz. Buka dezagula urtea elkarrekin, familia giroaren pozetan eta bil gaitzela berriro Urteberritan Andre Mariaren festaburua ospatzera.

Bedeinkapen Nagusia

Nahi izanez gero erabil daiteke liburuxka honetan Eguberri egunerako ematen den Bedeinkapen Nagusia (77. orrialdea).